



OÑATIKO UDALA

Telefona: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI, Oñatiko Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau EGIAZTATZEN DUT:

2011ko uztailaren 7ko bileran, Udal Plenoak besteak beste ondorengo erabakia hartu zuela:

.- Bake Epaile kargua: Epaimahaiaren proposamena.

2011ko otsailaren 23ko Udal Plenoaren erabakiz, Bake Epaile kargua betetzea erabaki zen, horretarako dagokion Baldintza Plegua onartu eta deialdiak egin zirelarik (2011ko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkarian, Udal Iragarki Taulan, eta Oñatiko Bake Epaitegiko eta Bergarako Auzitegiko Iragarki tauletan argitara eman zen)

Jendeagirian egon den epean ondorengo hiru eskaera jaso ziren:

- .- M^a del Carmen Telleria Rodriguez.
- .- Jose M^a Telleria Rodriguez.
- .- Milagros Madinabeitia Erostarbe.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga apirilaren 19an burutu zen eta M^a del Carmen Telleria Rodriguez eta Milagros Madinabeitia Erostarbe andreek hizkuntz eskakizuneko gaitasuna agertu zuten, Jose M^a Telleria Rodriguez ez zen aurkeztu.

Hau dela eta, 2011ko ekainaren 10ean bildutako Epaimahaiak honako puntuazioak aurkeztu ditu:

	Langabezia	Elkarizketa	Guztira
.- M ^a del Carmen Telleria Rodriguez.	0	4,1	4,1
.- Milagros Madinabeitia Erostarbe.	2	7,4	9,4

Ondorioz, Epaimahaiak ahobatez Bake Epaile kargurako Milagros Madinabeitia Erostarbe. andrea izendatzeko proposamena luzatu du, ordezkoa M^a del Carmen Telleria Rodriguez izendatuz.

Gaia aztertu ondoren eta Epaimahairen proposamena kontutan hartuz, Udal Plenoak ahobatez Baldintza Pleguaren arabera Milagros Madinabeitia Erostarbe Bake Epaile izendatzea erabaki du, ordezkoa M^a del Carmen Telleria Rodriguez. izendatuz eta guzti honen berri Euskal Autonomia Elkarte Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari emanez.”

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin 2011ko uztailaren 8an

Alkatearen O.I

IDAZKARIAK